

144. FITXA Bioekonomia sustatzeko programak eta proiektuak babesteko dirulaguntzak, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) kofinantzatuta

Nori zuzendua: egoitza fiskala Espainian duten eta legez eratuta dauden pertsona juridikoak, publikoak zein pribatuak, besteak beste: toki-administrazioa osatzen duten erakundeak, partzuergoak, organismo publikoak eta zuzenbide pribatuaren mende ez dauden zuzenbide publikoko entitateak.

Sarbide-esteka: [Hasiera - Fundación Biodiversidad a](#)

Erreferentziazko araudia: [Fundación Biodiversidad F.S.P.-ren maiatzaren 27ko Ebazpenaren laburpena, zeinaren bidez onartzen baita bioekonomia sustatzeko programak eta proiektuak babesteko norgehiagoka erregimen bidezko Fundación Biodiversidad F.S.P.-ren dirulaguntzen deialdia argitaratzea, Eskualde Garapeneko Europako Funtsek \(EGEF\) kofinantzatuta](#)

Eremuak: Bioekonomia

Zenbatekoa: 39.621.896,10 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/07/23

Laburpena

Deialdi honen xedea da **bioekonomiaren garapena sustatzen duten** proiektuentzako laguntzak arautzea, baldin eta proiektu horiek **azpiegitura berdea, konektagarritasuna, ekosistema degradatuen lehengoratzeta eta funtzio anitzeko paisaiak garatzea, hobetzea eta sendotzea sustatzen duten**. Helburua ere bada areagotzea biodibertsitatea eta kontserbazioa, klima aldaketara egokitzea, baso suteak prebenitzea eta desertifikazioaren aurka borrokatzea, eta, aldi berean, landa ingurunean aukerak eta enplegua sortzeko eta erronka demografikoaren aurkako borrokan laguntzeko.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Bioekonomia, azpiegitura berdea, biodibertsitatea, klima aldaketara egokitzea eta erronka demografikoaren aurkako borroka bultzatzen laguntzeko jarduera-ildo hauek finantzatzeko dira:

- Baso-lurren aprobetxamenduak eta erabilerak garatzeko eta dibertsifikatzeko ekintzak**, jasangarritasun-printzipioa txertatuz eta biodibertsitatea, suteen prebentzioa, azpiegitura berdea eta zerbitzu ekosistemikoen hornidura lagunduz.

- b) **Funtzio anitzeko paisaiak bioanitzagoak, konektatuagoak eta erresilienteagoak izaten laguntzera** bideratutako ekimenak, **baso-masak**, baso-tratamenduak eta basoen eta ekologiaren lehengoratzeari **hobetuz**, eta abeltzaintza estentsiboa, transhumantzia, erlezaintza, nekazaritza zein basogintza sustatuz.
- c) **Trantsizio agroekologikora** bideratutako ekimenak, modu hauen bidez: **nekazaritzako jardunbide egokiak, klima aldaketara egokitzeko neurriak**, naturan oinarritutako soluzioak eta tokiko baldintzetara egokitutako laboreen dibertsifikazioa.
- d) **Biodibertsitatea mantentzen lagunduko duten ekoizpen-jarduerak** garatzea eta dibertsifikatzea, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren jasangarritasuna hobetzeko eskura dagoen ezagutza aplikatuz eta jarduera tradizionalak sustatuz.
- e) Gizarte- eta lurralde-kalteberatasun bereziko eremuetan kokatuta dauden eta **hondamendi naturalak jasan dituzten eremuak suspertzeko** lanak garatzea, badin ete ekologia berreskuratzeko, klima-aldaketara egokitzeko eta tokiko biztanleentzako aukerak sortzeko jarduerak biltzen dituzten.
- f) **Baso-suteak prebenitzeko** jarduerak, tokiko plangintza, erregai-kargaren kudeaketa eta azpiegituren hobekuntza barne.
- g) Deialdiaren **helburuak lortzen laguntzen duen** beste edozein jarduketa.

Gastuetarako aldi hautagarria

Proiektuek **3 urteko iraupena izango dute gehienez**, eta **ezin izango dira hasi deialdiaren ebazpen-eguna baino lehen**.

Proiektuak amaitzeko azken eguna **2028ko irailaren 30a izango da**, hau da, EGEF 2021-2027 Espainiako Eskualde Anitzeko Programa (EEAP) amaitu baino 15 hilabete lehenago, aplikatu daitezkeen edozein luzapen kontuan hartuta.

Laguntzen zenbatekoa

Proiektuaren gutxieneko zenbatekoa **500.000 eurokoa** izango da, eta gehienekoa **2.000.000 eurokoa**.

Dirulaguntzaren intentsitatea gehienez **% 40**koa izango da honako autonomia-erkidego hauetan: Aragoi, Katalunia, Madril, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Autonomia Erkidegoa.